

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2019ko maiatzaren 7ko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena

– **Foru dekretua:**

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 27/2019 Foru Dekretua, maiatzaren 7koa. Onestea interes orokorreko 2019rako xedeen eremuko lehentasunezko mezenasgo jardueren edo programen zerrenda, bat etorritz irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubidearen eta mezenasgorako zerga pizgarrien uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak ezarritakoarekin.

– **Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 300/2019 Erabakia, maiatzaren 7koa. Onestea aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren 2019ko maiatzaren 14ko ohiko bilkura aurreko egunera, maiatzaren 13ra alegia.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 301/2019 Erabakia, maiatzaren 7koa. Onestea Arabako Foru Aldundiaren 2018ko aurrekontutik 2019ko ekitaldira luzatu diren kredituen zehaztaperen berria, horien zenbatekoa eta dagozkien konpromiso kredituak.

Foru Gobernu Kontseiluaren 302/2019 Erabakia, maiatzaren 7koa. Onespena ematea 58/2019 kreditu transferentziaren espedienteari, 33.000,00 euroko zenbatekoaz, nahikoa funtsez hornitzeko "Azkena Rock Festivalen babesak" partida eta sortu berri den "Aizkolarien Euskadiko txapelketa" partida, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 303/2019 Erabakia, maiatzaren 7koa. Onestea 59/2019 kreditu transferentziaren espedientea, 85.349,62 euroko zenbatekoaz, funtsez hornitzeko "Obra txikiak gauzatzea" izeneko partida, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailak hala eskatuta.

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 304/2019 Erabakia, maiatzaren 7koa. Onespena ematea otsailaren 26ko 143/2019 Erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoaren partezko baieztapenari. Erabaki horren bidez, honako proiektu honek eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda aldatu zen: "A-625 errepidea 357,30 kilometrotik 354,22 kilometrora egokitzeko eraikuntza proiektua, zeina A-625 errepidea 359,65 kilometrotik 354,22 kilometrora egokitzeko eraikuntza proiektu aldatuaren proiektu xehatua baita."

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 305/2019 Erabakia, maiatzaren 7koa. Onespena ematea "Larrazubi eta Fontechan andel berria eta hornidurako altako sarea berritzeko proiektua. 1. fasea: andel berria eta loturak" proiektuaren obretarako kontratua adjudikatzeari, guztira 388.139,00 euroan, BEZa barne, eta 5 hilabeteko gauzatze epearekin.